



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.com

ESPAÑA 	FRANKEO
	ITUNDUA
	FRANQUEO
	CONCERTADO
ZK/NRO 37000126	

2014ko MAIATZA - 155. zenbakia

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013 **liburua** **eta diskoa argitaratu** **ditu Bertsozale Elkarteak**

Bertsozale Elkarteak antolatu dituen edizio guztietan Bertsolari Txapelketa Nagusiak emandakoa liburu batean bildu izan da. Aurtengoak Txapelketako bertsoaldien hautaketa zabala biltzen dituen diskoa eramango du. Maiatzaren lehen astetik ohiko liburudendetan eta www.lanku.com webgunean salgai daude. Liburua eta diskoa batera salduko dira 20 eurotan.

Maiatzaren zazpian Subijana etxean egindako prentsaurrekoan eman zituzten argitapenaren gaineko xehetasunak Jon Agirresarobe Txapelketa Nagusiaren koordinatzaileak, Felix Irazustabarrena bertso edukietan aditua den kazetariak eta Karlos Aizpurua Mintzola Fundazioko ikerkuntza eragileak.

Txapelketa Nagusiko liburuak bertsoak, kronikak, argazkiak eta iritziak eskaintzen ditu. Xenpelar Dokumentazio Zentroak koordinatuta, Arnaitz Lasarte, Rosita Anakabe eta Maria Izaga aritu dira transkribaketan lanetan. Argazkiak, berriz, Gari Garaialde eta Alberto Elosegik egin dituzte Txapelketan zehar. Felix Irazustabarrenak egin ditu girotze idatziak eta bertso hautaketa.

Bertsozale Elkartearen ohiko irizpideak erabili ditu hautaketarako: bertsoari guztien bertsoak agertzen dira, ariketa eta saio guztietakoak. Liburuan irakurgai dauden bertsoak diskoan entzungai daude mp3 formatuan.

Irazustabarrenaren esanetan ez da kolpe bakarrean oso-osorik irakurtzeko liburuak: "Zatika irakurriko dute bertsozale gehienek, kontsultarako edo prestaketa lanetan lagungarri izango zaio lanean ari denari". Saio bakoitzeko 10-11 bertsoaldi eta finala oso-osorik bildu dituzte liburuan eta diskoan.

Ikerlarien ekarpenak

Mintzola Fundazioan lanean ari diren ikerlariak ere Txapelketa Nagusiaren gaineko bere ikuspuntua eman dute. Norberak bere iker lerroa izan du abiapuntu. Luzea da zerrenda: Jone Miren Hernandez, Xabier Paya, EHUKo IXA Taldea, Teresa Del Valle, Jexux Larrañaga, Anaís Falcó eta Christian Simelio, Pere Bescós eta Olatz Mitxelena.

Horiez gain, bertsozaintza ikuspegia aztertu dute Xabier Sukiak, Gorka Azkaratek, Joxerra Garziak, Arkaitz Goikoetxeak eta Andoni Egañak.

Azkenik, Bertsolari Txapelketa Nagusian erabili diren doinuaren azterketa ere egin dute Joanito Dorronsorok eta Martin Aramendik. Sei doinu berri identifikatu dituzte eta horiek doinutegian txertatu.



Gari Garaialde eta Alberto Elosegiren Txapelketa Nagusiko argazkiekin hornituta dago liburuak. //Gari Garaialde. XDZ



SUSTRAI COLINA
Donibane-Garazi, 2014-III-21

Gaia: Enpresaburu bat zara, eta zure semeak enpresaren segida izan behar zuen. Baina semeak "Bertsolari izan nahi dut" esan dizu.

Doinua: ETaren su-etenetik

Nik zurgin enpresa bat dut landua garairik garai nere semea kokortu ta nerekin hasiko zai. Gaur ondora etorri zait zakur zahar bezain lasai "Bertsolari izan nahi dut" ta pentsatu dut aiaiai Amets Arzallus ikusi duzu denetan aipagai txapela buru gainean irriparretsu ta alai baina txapel bakarra da ta Amets Arzallus ere bai. (bis)

Bertsolari izatea baduzu amets bakarra ez pentsa errima eta doinua denik iparra. Nik seme bakarrik nahi dut zuk daukazun irriparra horregatik dut albotik gogotik lagun beharra. Zurgin gisa ari zaite aitarekin ttirri-ttarrta zuk eman bertso berria nik kantatuko dut zaharra zurgin ona izaten dena ez da bertsozari txarra. (bis)

Ni urtetan aritu naiz izerditan blai kopeta zerra eskutan harturik zur ta egurrei kolpeka nahiz ta amets egitea gauza ederra den tarteka bitzta ez da bakarrik bertsoa ta txapelketa. Segi zazu plazaz plaza zure plazeraren xerka ta zaude lasai enpresa ez dut salduko zer gerta bertsoengatik bakarrik gosez hilko zara eta. (bis)

“Bertsolaritza irakaskuntzan” programa finantzatzeari utzi dio Hezkuntza Departamenduak

2013-2014 ikasturtean Nafarroako D ereduko ikastetxe publikoetako 1.434 ikasle ari dira bertsolaritza eskola orduetan jasotzen.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamenduak “Bertsolaritza irakaskuntzan” programa finantzatzeari utzi dio 2013ko irailetik. Horren aurrean, Nafarroako Bertsozale Elkartek Hezkuntza Departamenduari bere konpromisoak bete ditzala eskatu dio eta “Bertsolaritza irakaskuntzan” programa modu duin eta iraunkorrez finantzatu dezala.

1985etik Nafarroako D ereduko ikastetxe publikoetako ikasleek “Bertsolaritza irakaskuntzan” programa jaso dute. Orduetik milaka gaztetxok aukera izan dute ikastorduen barruan bertsolaritza eskolak jasotzeko. Hain zuzen, 2013-2014 ikasturtean Nafarroako D ereduko ikastetxe publikoetako 1.434 ikasle ari dira bertsolaritza eskola orduetan jasotzen.

Urte horietan guztietan, Nafarroako Bertsozale Elkartea arduratu da programaren kudeaketaz Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamenduari izan dituen kontratuen bitartez. Nafarroako Gobernuaren ekarpenak programa osoa bere gain hartzen ez zuenez, hainbat udal eta mankomunitateren finantzazioa ere jaso du programak.

Azken urteotan traba ugari izan ditu “Bertsolaritza irakaskuntzan” programak. Esate baterako, 2011n hiru urtetarako kontratu berria sinatu zuen Nafarroako Bertsozale Elkartek Nafarroako Gobernuarekin, baina 2011-2012 ikasturte amaierarekin batera, Hezkuntzak adierazi zuen 2011n sinatutako kontratuak ez zuela baliorik.

Horrez gain, azken urteotan etengabekoak izan dira “Bertsolaritza irakaskuntzan” programak jasan dituen murrizketa ekonomikoak. 2009an 52.000 € bideratu zituen Hezkuntza Departamenduak, 2012an 32.800 € eta orain 0 €. Lau urtetan etengabeko beherakada sufritu du programak eta horren ondorioz,

2009arekin alderatuta, 765 eskola-ordu gutxiago ematen dira gaur egun.

Errematea 2013ko irailean ailegatu zen. Orduan, Hezkuntza Departamenduak Nafarroako Bertsozale Elkarteari jakinarazi zion ez zutela exekutatuko programarako zegoen partida, “beste lehentasun batzuk zeudelako”.

2014ari begira egoera moldatzen saiatuko zela agindu zuen Hezkuntza Departamenduak, baina gaur gaurkoz Bertsolaritza Irakaskuntzan programarako ez du euro bakar bat ere bideratu.

Nafarroako Bertsozale Elkartek jakitera eman duenez egoera honek kinka larrian jartzen du ez bakarrik “Bertsolaritza irakaskuntzan” programa, baizik eta Nafarroako Bertsozale Elkartearen proiektua bera ere. Horregatik, Hezkuntza Departamenduari eskatu dio bere konpromisoak bete ditzala eta “Bertsolaritza irakaskuntzan” programa modu duin eta iraunkorrez finantzatu dezala.

Parlamentuan eta ikasteetxetan, babesa

Egoeraren berri emateko hainbat bide lantzen ari da Nafarroako Bertsozale Elkartea. Apirilaren 29an Nafarroako Parlamentuan gai honen inguruko lan saio bat egin zuten eta oposizioko talde guztien babesa jaso zuten. Halaber, Nafarroako Gobernuak “Bertsolaritza irakaskuntzan” programa finantzatzen segi dezan mozio bat aurkeztuko zutela iragarri zuten.

Halaber, programa jasotzen duten ikastetxeen babesa jaso du Nafarroako Bertsozale Elkartek. Haietako Hezkuntza Departamenduari eskatu diote “Bertsolaritza irakaskuntzan” programaren finantzazioari euts diezaien.



“Bertsoa Unibertsitatean” eskolaren lehen edizioa abiatuko da uztailen, EHUko uda ikastaroen barruan

EHUko uda ikastaroen baitan “Bertsoa Unibertsitatean” eskola antolatu dugu eta Mintzola Fundazioak eta EHUko Uda Ikastaroak elkarlanean. Gipuzkoako Foru Aldundiak babestu du proiektua. Bost urteko hitzarmena adostu dugu, beraz, aurten hasi eta datozen 4 urteotan bertsoaritzari eta ahozkotasanari buruzko 5 egunetako eskola prestatuko dugu. Zikloa hitzaldi, mahai-inguru eta performancez osatuko da, uztailaren bigarren astean emango da, Donostiako Miramar Jauregian.

Bertsoa Unibertsitatean eskolak bertsoaritzaz izango du ardatz, baina bertsoaritzaz ondoko baratzak ere hartuko ditu bere baitan. Batetik, ahozko literaturaren ekosistemako kideei egingo zaie leku: antzerkia, ipuina zein kantua. Bestetik, kantu inprobisatuaren ekosistemako beste kideei egingo zaie leku; oraingoan ez bada etorkizuneko edizioetan.

Aurtengo eskolan bertsoaritzaz eta beste hiru esparruren arteko harremanen berri emango da. Hiru ikastaro izango ditu bere baitan eta uztailaren 7tik 11ra gauzatuko da. Ziklo osorako edo ikastaro bakoitzerako matrikula egin daiteke.

Interesatuok matrikula edota lojamendu bekak eska ditzakezue. Informazio gehiago www.ehu.es/cursosverano webgunean aurkituko duzue.

- **Ikastaroak:**
- 1. Bertsoaritzaz eta ahozkotasanaz Hezkuntza Arautuan.
- Zuzendaria: Karlos Aizpurua
- Emaleak: Erika Lagoma, Estibalitz Alberdi, Amaia Agirre, Juan Cruz Igerabide, Pello Mari Añorga, Ainara Gurrutxaga, Iñaki Murua, Ainhoa Agirreazaldegui eta Jone Miren Hernandez.
- Uztailaren 7, 8 eta 9an
- Matrikula prezioa, maiatzaren 31ra arte: 80 € / Ekainaren 1etik aurrera: 92 €
- 2. Bertsoaritzaz eta beste sorbideak.
- Zuzendaria: Beñat Gaztelumendi.
- Emaleak: Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga eta Andoni Egaña.
- Uztailaren 10ean
- Matrikula prezioa, maiatzaren 31ra arte: 40 € / Ekainaren 1etik aurrera: 44 €
- 3. Bertsoaritzaz eta gaurko gizartea.
- Zuzendaria: Arkaitz Galkoetxea.
- Emaleak: Xabier Aierdi, Jon Sarasua eta Miren Artetxe
- Uztailaren 11n
- Matrikula prezioa, maiatzaren 31ra arte: 40 € / Ekainaren 1etik aurrera: 44 €
- Ziklo osorako matrikula:
- Matrikula berezia, maiatzaren 31ra arte: 120 € / Ekainaren 1etik aurrera: 140 €
- Interesatuok matrikula edota lojamendu bekak eska ditzakezue.
- Informazio gehiago www.ehu.es/cursosverano webgunean aurkituko duzue.
- Edozein argibidetarako (+34) 943219511 telefono zenbakira edo udaikastaroak@ehu.es helbide elektronikora jo dezakezue.

Bizkaiko Eskualdeetako Bertsolari Txapelketekin abian da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2014

Dagoeneko martxan da hasi da martxan abendu arte luzatuko den Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2014.

Lehenengo fasean, Eskualdeetako Bertsolari Txapelketak jokatu dira, eskualdez eskualde, eta bakoitzean txapelkun bana izendatu arte. Denera zortzi eskualdek osatzen dute Bizkaiko mapa eta guztietan jokatu dira txapelketak.

Maiatzean jokatu dira final guztiak. Finaletara heldu baino lehen, tokian tokiko kanporaketak jokatu ari dira apiriletik.

Bizkaiko Eskualdeetako Bertsolari Txapelketa zein uda ostean hasiko den Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren berri izateko webgune berezia dago martxan: www.bertsozale.com/bizkaikotxapelketa

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2014. Eskualdez eskualdeko finalak

- **Arratia**
- Maiatzak 4. Igorreko Lasarte aretoan, 17:30ean.
- **Busturialdea**
- Maiatzak 10. Gernika-Lumoko Elai Alai aretoan, 17:30ean.
- **Durangaldea**
- Maiatzak 18. Berrizko kultur etxean, 17:30ean.
- **Enkarterri-Ezkerraldea**
- Maiatzak 31. Zallan Zine antzokian, 17:30ean.
- **Hego Uribe**
- Maiatzak 3. Bilboko Hika Ateneo antzokian, 17:30ean.
- **Lea-Artibai**
- Maiatzak 17. Ziortza-Bolibarko frontoian, 17:30ean.
- **Uribe Butro**
- Maiatzak 11. Zamudion, Parke teknologikoko aretoan (Barku eraikina) 17:30ean.
- **Uribe Kosta**
- Maiatzak 24. Algortako Fadura kiroldegiko aretoan, 17:30ean.

Eskolarteko txapelketaren finalak, bertso-eskolen egunen barruan

Jai giroan jokatu dira herrialdeetako eta Euskal Herriko eskolarteko txapelketetako finalak. Nafarroan dagoeneko apirilaren 4an egin zuten, baina gainerako herrialdeetan hilabete honetan izango dira Eskolarteko berrituaren finalak.

Egun osoko egitarau bete eskainiko dute finalek. Izan ere, bertso-eskolen egunak baliatuz jokatu dira Eskolarteko txapelketen finalak, bertan 15-18 urte bitarteko gazteak izango dira kantuan.

Finalez gain egun osoan zehar umeen bertso-eskolen emanaldiak, bazkari herrikiokiak, eta hamaika ekimen egingo dira.

Euskal Herriko eskolarteko jaiak ekainaren 21ean izango da, Orion.

Herrialdeetatik autobusak antolatuko dira Orioko festara joateko.

Finaletarako autobus tiketak, bazkarietarako txartelak eta kamisetak eskuragarri daude www.bertsozaleak.eu atarian.

ESKOLARTEKOAREN FINALAK

- **Nafarroa.** Apirilak 4. Iruñea
- **Gipuzkoa.** Maiatzak 25. Arrasate
- **Araba.** Maiatzak 31. Legutio.
- **Lapurdi,** Baxe Nafarroa eta Xiberua. Maiatzak 31. Hazparne
- **Bizkaia.** Ekainak 7. Gernika
- **Euskal Herriko eskolarteko jaiak.** Ekainak 21. Orio



Puntua jarrita

BEÑAT IGUARAN

HARITUZ HARITUZ

Joño Aitor, bizi al haiz? Lagun zaharrekin zer gogoratzen haiz, lana jartzeko bakarrik? Ea ba, gure eskualdeko berri ahalik eta ondoen ematen saiatuko nauk.

Gure eskualdea, Tolosaldea, beti izan da nahiko bertsozalea, nahiz eta gure garaian jende askorik ez ibili bertso-eskoletan. Kontua da, azken urte hauetan eskualdeko 7-8 bertsolari edo sasi-bertsolari (ez dakit gure burua non kokatu Aitorren artikulua irakurri eta gero) elkartzen hasi ginela astero bertsoan aritzeko. Bertso eskola osteko hizketaldi horietako batean, bakarren batek botu zuen eskualdeko bertso-eskolak batuz sare bat egitea polita eta beharrezkoa litzatekeela, eta denbora eta bilera dexente eta gero sortu zen Harituz Bertsozaleen Elkargunea.

Hasiera batean helburua bertso-eskolak osatzea eta elkarrekin harremanetan egotea bazen ere, ideia berriak sortuz joan ginen pixkanaka, eta iaz hilabetero saio bat edo bertsoarekin lotutako zerbait antolatu genuen; ikerketa taldea ere osatu genuen eskualdeko bertsolari zaharrei buruzko lantxoren bat egin nahian. Aurtun, berriz, bertso-eskolak zenbat ugaritu diren ikusita, herriarteko txapelketa egin berri dugu.

Otsailaren 14an hasi, apirilaren 11n eman genion bukaera herriartekoari; 33 "bertsolari" eta 11 taldek hartu genuen parte. Lehenengo saiotik bertatik hasita, gainezka izan dira saioa antolatutako tokiak, plaza guztiak txiki geratu zaizkigu, baita finalean Anoetako gaztetxea ere, 450 lagun bildu baikinaren bertan. Bazegoen nonbait bertso gosea!

Horrez gain, azpimarratzekoa da 33 bertsolari horietatik askok lehenengo plaza zutela, eta tartean bazirela inoiz bertso-eskoletan ibili gabeak ere; dena dela denek eman zuten maila bikaina.

Gustura jarraituko nuke, baina, denak nazkatzerako beste norbaiti txanda ematea onena. Azken egun hauetan Bertsoleta delako ekimen baten berri izan dugu, Nafarroako eremu ez-euskaldunean euskaraz ikasteko dituzten zailtasunak salatzeko sortu omen dena. Zerbait gehiago jakin nahian, Lasarteko saioan ezagutu nuen Xabi Maiak eman dezala egin dutenaren berri, ea zer moduz joan zaien dena, Iruñera osorik heldu bada behintzat.

Koplak

Bertsolaritzari buruzko hitzaldiak eta saioak Sardinian

Maiatzaren 2an eta 3an kantu inprobisatuari buruzko jardunaldietan izan ziren Sardinian Andoni Egaña eta Arrate Illaro bertsolariak eta Karlos Aizpurua Mintzolako ikerkuntza eragilea. Andoni Egañak eta Karlos Aizpuruak hitzaldi bana eman zuten. Egaña bertsolaritzak hizkuntz komunitatean duen eraginaz aritu zen; eta Aizpurua Mintzolaren eta Bertsozale Elkartearen egitasmoez. Hitzaldiak ez ezik bertsoan aritu ziren Arrate Illaro eta Andoni Egaña Sardiniako "cantadoriekin", hots, kantua inprobisatzen duten sardiniarrekin.

Poto-Finixa



Bertso Udalekuetako begirale taldea udara noiz helduko zain

Bertsozale Elkarte

Virginia Imazekin formazio tailerra

Laugarren urtez Bertsozale Elkarteko Genero Taldeak sorkuntzari begirako formazio tailerra antolatu du, Oihulari Klown taldeko Virginia Imazekin. "Inprobisazioa eta umorea eskenategian" izena du tailerrak, eta asteburu pasako formatua du.

Uztailaren 4tik 6ra egingo da Bergarako Aibar baserrian (Oihulari Klownen aterpetxean). Izen ematea zabalik dago maiatzaren 30era arte. Taldea osatzerakoan izen-emate ordena hartuko da kontutuan, beraz, asmorik duenak agudo ibili beharko du. Gehienez, 14 kide izango ditu taldeak, emakumez zein gizonez osatuta. Era berean aurreko edizioetan parte hartu ez dutenek lehentasuna izango dute.

Izen-ematea eta informazioa: umorez@bertsozale.com / (+34) 943 69 41 29.



XABIER AMURIZAREN azken liburua

Lankun dago eskuragarri

Sartu www.lanku.com helbidean eta egin eskaera!

